



ONDARROAKO
UDAL EUSKARA
BATZORDEA

Batzar-zk.: 2013/3
Eguna: 2013-04-23
Hasiera-Amaiera: 18:35 - 19:50
Tokia: Batzar-gela 2

UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

Batzartutakoak:

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Edurne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Mari Tere Kaltzakorta	Zaldupeko eskolako ordezkaria
Ibon Aginaga	Lea-ArtiBai Euskarari elkarteko ordezkaria
Itsasne Murillo	Txomin Agirre ikastola
Txomin L. Aramaio	AEK, Radixu irratia eta Kafe Antzokiaren ordezkaria
Asier Alkorta	Hitza egunkaria
Miren Urresti	EAJren ordezkaria
Maite Rey	Batzordearen idazkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Nagore Alegria	Txirimorraski taldeko ordezkaria
----------------	----------------------------------

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. Euskara Sustatzeko Plan Berria diseinatzeko proposamena eta UEMAren proposamena tailer bat egiteko: *Euskararen arnasguneak*.
3. Diru-laguntzetako ebazpen-batzordeko kide bat izendatzea.
4. Letren Jaialdia antolatzeako batzarrak emandakoa.
5. Eskariak eta galderak.

Esan-eginak:

2. Euskara Sustatzeko Plan Berria diseinatzeko proposamenak eta UEMAren proposamena tailer bat egiteko: *Euskararen arnasguneak*.

Euskararen arnasguneak:

Arnasguneak izeneko tailerra egiteko proposamenaren nondik norakoa azaldu du idazkariak.



Batzar-zk.: 2013/3
Eguna: 2013-04-23
Hasiera-Amaiera: 18:35 - 19:50
Tokia: Batzar-gela 2

UEMAk egindako proposamena da eta, funtsean, euskara bizirik dagoen herrietan herritarren trinkotzea du helburu, eta kontzientziarioa areagotzea; proposamena Kontseilutik dator eta herriz herri ari dira tailerren zabalkundea egiten.

Tailer gisa egituraturako hitzaldi parte-hartzaileak dira, bi orduko bi saioz osatuak; bertan parte hartuko duten kideek gogoeta egitea bilatu nahi da eta, era berean, jarraipena emango liokeen dinamika batean murgiltzea proposatzen da. Ahalegina egin behar da tailer horietan euskalgintzaren inguruko pertsonak edo euskaltzale aktibo izateko aukera dutenak biltzeko, haiek ere eragin dezaten euskararen erabileraren aldeko diskurtsoan.

Era horretara lortu nahi da herriko euskararen erabilerari buruzko kezkek eta hutsuneak, eta baita konponbideak ere ateratzea. Azalpen-bideo labur baten bidez azaltzen da gaia, eztabaidataldeak erabiliz. 2 saio egitea aurreikusten da.

Euskara sustatzeko lantaldea bildu zen eta gai hori ere aztertu zuen, egokia begitandu zitzaizen tailerrak egitea, baina ez Plangintza berria diseinatzeko kontuan izateko; baizik eta hortik aparte.

Euskara Sustatzeko Plan Berria diseinatzeko proposamena:

Batzordeburuak azaldu du gaia:

Hilaren 17an egin zen lehenengo batzarra talde eragilearekin plana nola diseinatu erabakitzeko, 8 laguneko taldea da eta bertan parte hartzen dute Ondarroako udal euskara zinegotziak izandakoek, euskara teknikariak beste udal edo erakunde batzuetan, UEMAko teknikari bat eta HITZAREN ordezkari bat.

Bertan adostu zen lantaldeak egitea diagnostikoa egiteko eta plangintza hortik abiatuta diseinatzeko. 4 lantalde izango dira: transmisioa (familia, euskalduntze-alfabetatzea, irakaskuntza) lan mundua, aisialdia eta gazteak. Egun berean dena bilduko dira eta aurreikusten denez, 2 saio egin beharko dituzte: batean diagnostikoa egin eta bigarrean, berriz, proposamenak egiteko.

Talde eragilean iradoki zuten kanpo aholkularitza bat hartzea lan hori egiteko, baina batzordeburuak azaldu du ez dagoela dirurik eta, ahal bada, herritarrekin eta euskalgintzan ibili direnekin egingo dela lan hori, lanketa hori egiteko gai diren pertsonak badaudelako. Gainera, Urrate Etxaburu ondarrutarra (EMUNen lanean dagoena) prest agertu da laguntza emateko.

3. Diru-laguntzetako ebazpen-batzordeko kideak izendatzeko hautagaiak proposatzea.

Batzordeko idazkariak azaldu du kide bi izendatu beharra dagoela, Txomin L. Aramaiok bere burua eskaini zuen aurreko batean, eta beraz, beste kide bat aukeratu behar dela. Asier Alkortak eskaini du bere burua.

4. Letren Jaialdia antolatzeako batzarrak emandakoa.

Idazkariak azaldu du ikastetxeekin adostu zela nola egin 2013-2014ko deialdia, honela:

Ekintza	Ikasleak	Egunak	Ordua	Tokia
RALLYA	LH 5 eta 6. (guztiek)	2013-10-07tik 9ra	9:00-11:00	Ikastetxean bertan
	DBH (borondatez)	2013-10-10	8:30- 11:30	Tokia zehazteko
AMAIERAKO EKITALDIA	LH 5 eta 6 (guztiek)	2013-10-11 ?	9:00-10:30	Tokia zehazteko
	DBH (borondatez)	2013-10-10	11:30-12:45	Tokia zehazteko
SARIAK EMATEA	denek	Itsasoa Berbetan Galan		

Horri buruz batzordeburuak gaineratu du Literatur Amuak egitarauaren data zein izango den, pasa den urtean bezala, azaroaren lehen asteburuan: urriak 31 eta azaroak 1 eta 2.

5. Eskariak eta galderak.

Gai hauen gaineko informazioa eman da:

- Eskualdeko euskara batzordea.

Ibon Aginagak azaldu du eskualdeko bigarren batzarrak emandakoa. Lantaldeetan egin zen: Euskalduntze-alfabetatzea, lan mundua (enpresak, merkataritza eta ostalaritza), Erabilera eta Hedabideak eta Udaletako hizkuntza politika. Lantalde horietan guztietan eskualdeko errealitatea zein den aztertu zen, eta hurrengo batzarrean begiz jotako arazoei, edo hutsuneei irtenbideak ematen saiatuko dira.

- Errenta aitortpena.



Batzar-zk.: 2013/3
Eguna: 2013-04-23
Hasiera-Amaiera: 18:35 - 19:50
Tokia: Batzar-gela 2

Idazkariak azaldu du gaia: Lekeitioko, Markina-Xemeingo eta Ondarroako udalek, euren Euskara Zerbitzuen lankidetzak sustatuta, herritarrek errenta aitortpena euskaraz egin dezaten kanpaina bat abiarazi dute. Markina-Xemeingo Udalaren ekimena izan da.

Erakundeetan kartelak jarriko dira eta erakundeotako zuzendariei udalerrri honetako egoera soziolinguistikoa errespetatu eta herritarrei euskaraz egiteko aukera eman diezaioten eskatuko diete udalek. Horrekin batera, herritarrak aitortpena euskaraz aurkez dezaten eskuorri bat zabalduko da herritarren etxeetara.

ERABAKIAK

- Batzar-agiri hau onartu da: 2013-03-05koa.
- Arnasguneak lantzeko tailerra udazkenean egiteko eskaera egitea UEMari.
- Asier Alkorta eta Txomin L. Aramaio izendatzea diru-laguntzetako ebazpen-batzordeko kide.
- Literatur Amuak egitarauaren data finkatu da: urriak 31 eta azaroak 1 eta 2

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua
Leire Beitia

Idazkaria
Maite Rey